

Aurkezpena

Arritxulo Aterpea

Arritxulo aterpea "Aiako Harria" parke naturalean dago. Urteak daramatza talde ezberdinekin lan egiten: ikastetxeak, udalekuak, partikularrak... Aterpeak 80 plaza ditu, hauek gela ezberdinetan banatuta daudelarik. Horretaz gain, 100 lagunentzako jangela dauka.

Txiribuelta

Txiribuelta hezkuntza zerbitzuak ematen dituen enpresa da. Hau kulturaren, ingurumenaren eta animazio soziokulturalaren alorrean lan egiten duten profesional talde batek sortzen du eta talde honek erabiltzen duen hezkuntza sistema berezia, berritzailea eta konpromisoduna da. Gure kultur ekintzetan eta programetan parte hartuz gero, Aiako Harria Parke Naturalak eskaintzen.

Arritxulo + Txiribuelta

2010ko neguan ezagutu ginen. Proiektu batzuk elkar prestatzen hasi ginen eta 2011an Txiribuelta taldeak ikastetxeei Arritxulon jarduera ezberdinak proposatzen hasi zen. Udaberri horretan mila ikasle pasa ziren Arritxulo aterpetxetik eta ikusi genuen bai Arritxulo bai Txiribuelako helburuak betetzea lortu genuela: Ikasleak irribarrez joaten ziren, Ikastetxeak pozik eta balorazioak ezin hobeak izanez. Horregatik, indarrak batu eta Udalekuak Arritxulon sortzeko asmotan lanean jarri ginen. Honen emaitza ezin hobeia izan da eta urtero 3.000 ikasle pasatzen dira Arritxulotik. Guzti honengatik eta hainbat arrazoiengatik aurren ere gogoak eta ilusioa lehen egunean sentitu genituen.

Helburuak

- Gazteek esperientzia aberasgarria izatea
- Lagun berriak ezagutzea
- Naturaz gozatzea
- Gure ingurua ezagutzea eta errespetatzea
- Natura ezagutzen lagunduko duten ekintzak aurrera eramatea
- **HELBURU NAGUSIA:** Haur taldearentzat, udalekuak esperientzi alai eta baikorra izatea, hau da, haurrak udalekuan ondo pasatzea da helburu nagusia besteak beste

Ekintzak

- Kayak Hondarribiko hondartzan
- Irteera Hernaniko igerilekura
- Eskalada aterpeko rokodromoan
- Tirolina
- Ibilaldiak
- Puzgarriak
- Natur jolasak (Altxorraren bila, Herri Kirolak...)
- Jolas Haundiak (Olinpiadak, Gynkanak...)
- Aurkezpen jolasak
- Kooperazio jolasak
- Erlajazio jolasak
- Tailerrak
- Gaubelak, musika topera!